

2020-2021

Zerbitzu Kartaren testu osoa hemen kontsulta dezakezu:
www.bizkaia.eus eta www.bizkaia.eus/eskolakirola

ZERBITZU KARTA ESKOLA KIROLA

ZERBITZU KARTAREN UNITATE ARDURADUNA:
**Eskola Kirolaren Atala/
Eskola Kirolaren Buruzagitza**

 **Bizkaia**
*foru aldundia
diputación foral*



GURE ZERBITZUAK



Zerbitzuei eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrei buruzko araudia kontsultagarri dago Zerbitzu Karta testu osoa jasotzen duen agirian:

- www.bizkaia.eus
- www.bizkaia.eus/eskolakirola

BFAk kirol praktikaren kalitatea sustatu eta bultzatu nahi du Bizkaiko eskola umeen artean, kirola egiteko ohitura izan dezaten eta euren hezkuntza garapena osa dezaten.

KIROL JARDUERAK



Kirolean hastea

Kirolaren munduan hasteko helburuz garatutako jarduerak:

- **HEZIKI:** Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako eskola umei zuzendutako jarduera euren trebetasun psikomotorrak hobetze aldera.
- **KIROL ANITZA:** Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako eskola umei zuzendutako jarduera; bertan, kirol ugari ezagutzen dituzte umeek ikasturtean zehar, ondoren, horietako bat aukera dezaten.

Lehiaketa jarduerak

Kirol mailaren eta helburuen arabera 2 motatan sailkatzen dira:

- **PARTE HARTZEKOAK:** kirol bat ikastea eta kirolean jarduteko ohitura hartzea dute helburu. Parte hartze librekoak dira.
- **ERRENDIMENDUKO KIROLEAN HASTEAK:** kirol batean maila jakin bat lortzea du helburu, halako moldez non eskola garaia amaitzean lehiaketa federatuetan parte hartzeko moduan egongo diren umeak.
Parte hartzeko kupo handia da, interesa duen ikasle orok parte har dezan.

Irakaskuntza jarduerak

Kirol prestakuntzako jarduerak dira, lehiaketan parte hartu barik.

Prestakuntzaren mailaren arabera ondorengo multzoetako batean sailkatuko da jarduera:

- **HASTAPENETAKOAK:** kirol batean hasteko saioak; parte hartze librekoak.
- **TEKNIFIKAZIOTAKOAK:** kirol batean hobetzeko saioak, euren trebetasunengatik aukeratutako ikasleentzat.

Josteta jarduerak

Mendi irteerak, txirrindularitza,... horietan kirolean aritzen dira umeak lehiaketa barik.

GURE ZERBITZUAK



Zerbitzuei eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrei buruzko araudia kontsultagarri dago Zerbitzu Karta testu osoa jasotzen duen agirian:

- www.bizkaia.eus
- www.bizkaia.eus/eskolakirola

DIRU-LAGUNTZAK ERAKUNDE PARTAIDEENTZAT



Bizkaiko Foru Aldundiak diruz laguntzen ditu Lehiaketa jardueretan eta Kirolean hasteko jardueretan (Heziki eta Kirol Anitza) parte hartzen duten erakundeak.

Diru-laguntza horien xedea erakunde eskatzaileen ekintzei sostengua ematea da, ez jarduerak gauzatzeak dakartzan gastu guztiak finantzatzea.

SENTSIBILIZAZIOA ETA DIBULGAZIOA



Sentsibilizazio kanpainak xedatu, abian jarri, parte hartu eta jendarteratzea eskola kirolaren arloan.

GURE KONPROMISOAK



Urtero konpromiso horien betekizun maila webgune hauetan argitaratzen da:

- www.bizkaia.eus
- www.bizkaia.eus/eskolakirola

Konpromisoak ez betetzeagatik egin nahi diren kexak, erreklamazioak edo iradokizunak bideratu daitezke eskola kirola@bizkaia.eus helbide elektronikoaren bitartez edo BFAk horretarako dituen bestelako bideak erabiliz. 15 egun balioduneko epean, gehienez, erantzungo dira.

Zuzendu eta konpentsatzeko neurriak kontsultagarri daude Zerbitzu Kartaren testu osoa biltzen duen agirian.

KIROL JARDUERAK

GURE KONPROMISOAK

• **Kirol aukera zabala eta askotarikoa eskaintzea**, eta, hartara, asebetetze inkestan batez beste 7,5 baino gehiagoko puntuazioa lortzea.

• **Dibertsitate funtzionala duten ikasleen parte hartzea bultzatzea**, modu horretan, Bizkaiko Kirol Egokituaren Federazioarekin elkarlanean, jarduera inklusiboak sustatzea, eta eskaeren %100a artatzea lortzea.

• **Ondorengo guztiak barne hartzen dituen programa bat eskaintzea** eskola kirolaren arloan: lehiaketa jarduerak, parte hartzekoak eta errendimendukoak; hastapenekoak; jostetakoak; kirol anitza; eta Heziki jarduera.

• **Gutxienez 2 asteko epea ematea** neskato-mutikoek izena eman dezaten Eskola Kirolaren Programan.

• **Egun 1 lehenago, gutxienez, jakinaraztea** entitateen arduradunei kirol jardueren bat bertan behera utzi behar izanez gero. Telefonoa, whatsapp eta BFAren webgunea erabiliko dira informazioa jakinarazteko.

NOLA NEURTZEN DUGU?

• Kirol aukerari dagokionez erabiltzaileek lortutako asebetetze maila balioztatuz.

• Artatutako eskaeren ehunekoa (%).

• Eskola Kirolaren Programaren jarduera motak.

• Izena emateko zehazten den denbora.

• Kirol jardueren etendura jakinarazteko bideak.

• Kirol jarduera bertan behera geratu dela jakinarazteko behar diren egunen kopurua, jarduerarako aurreikusita zegoen data abiapuntu hartuta.

GURE KONPROMISOAK



Urtero konpromiso horien betekizun maila webgune hauetan argitaratzen da:

- www.bizkaia.eus
- www.bizkaia.eus/eskolakirola

Konpromisoak ez betetzeagatik egin nahi diren kexak, erreklamazioak edo iradokizunak bideratu daitezke eskola kirola@bizkaia.eus helbide elektronikoaren bitartez edo BFAk horretarako dituen bestelako bideak erabiliz. 15 egun baliouduneko epean, gehienez, erantzungo dira.

Zuzendu eta konpentsatzeko neurriak kontsultagarri daude Zerbitzu Kartaren testu osoa biltzen duen agirian.

KIROL JARDUERAK

GURE KONPROMISOAK

Kirol lizentziak lehenengo jardunaldiaren data baino lehen ematea xedatutako denboran eta moduan beharrezko izapideak egoki bete dituzten erakundeei.

Eskola Kirolaren arlorako BFAk atondutako webgunearen bidez informazioa ematea kirolarien izen-ematea lehenengo aldiz egiteko moduari buruz.

NOLA NEURTZEN DUGU?

• Kirolariei lizentzia emateko epeei lotutako ez-betetzeen kopurua.

• Webgunearen bidez jakinarazitako informazioa.

GURE KONPROMISOAK



Urtero konpromiso horien betekizun maila webgune hauetan argitaratzen da:

- www.bizkaia.eus
- www.bizkaia.eus/eskolakirola

Konpromisoak ez betetzeagatik egin nahi diren kekek, erreklamazioak edo iradokizunak bideratu daitezke eskola kirola@bizkaia.eus helbide elektronikoaren bitartez edo BFAk horretarako dituen bestelako bideak erabiliz. 15 egun balioduneko epean, gehienez, erantzungo dira.

Zuzendu eta konpentsatzeko neurriak kontsultagarri daude Zerbitzu Kartaren testu osoa biltzen duen agirian.

DIRU-LAGUNTZAK ERAKUNDE PARTAIDEENTZAT

GURE KONPROMISOAK

Kirol praktikaren kalitatea sustatu eta bultzatzea Bizkaiko eskola umeen artean, kirola egiteko ohitura izan dezaten eta euren hezkuntza garapena osa dezaten.

Xede horretarako, diru-laguntzak emango zaizkie eskola kirolaren programan parte hartzen duten erakundeei, zenbait irizpide aintzat hartuta, hala nola, prestakuntza, partaidetzaren sustapena, eskola proiektua, arbitrajeak, eta abar.

NOLA NEURTZEN DUGU?

- Erakundeei diru-laguntza emateko erabilitako irizpideak.

SENTSIBILIZAZIOA ETA DIBULGAZIOA

GURE KONPROMISOAK

Kirolarien legezko erantzuleen %100ari ematea “Eskola Kirolerako giltzarriak” izeneko informazioa Eskola Kirolaren programan izena ematean.

NOLA NEURTZEN DUGU?

- Informazioa helarazi zaien legezko erantzuleen ehunekoa (%).

GURE KONPROMISOAK



Urtero konpromiso horien betekizun maila webgune hauetan argitaratzen da:

- www.bizkaia.eus
- www.bizkaia.eus/eskolakirola

Konpromisoak ez betetzeagatik egin nahi diren kekek, erreklamazioak edo iradokizunak bideratu daitezke eskola kirola@bizkaia.eus helbide elektronikoaren bitartez edo BFAk horretarako dituen bestelako bideak erabiliz. 15 egun balioduneko epean, gehienez, erantzungo dira.

Zuzendu eta konpentsatzeko neurriak kontsultagarri daude Zerbitzu Kartaren testu osoa biltzen duen agirian.

ZERBITZU GUZTIAK

GURE KONPROMISOAK

Erabiltzaileak **artatzea** modu pertsonalizatu, atsegin eta profesionalen, zalantzak zein arazoak konpontzeko jarrera azalduz, eta, hartara, asebetetze inkestan batez beste 7 baino gehiagoko puntuazioa lortzea.

Eskola Kirolaren Programaren erabiltzaile guztiei ondorengo **berri ematea** ikasturte hasieran eta Kirol Zerbitzuaren webgunearen bidez: helburuak; kirol jarduerak; prestakuntza jarduerak; izena emateko prozesua; baimenen eskabideak; aseguru medikoak; eta abar.

Eskola Kirolaren webgunea aldi oro gaurkotzea eta, hartara, asebetetze inkestan batez beste 7 baino gehiagoko puntuazioa lortzea.

NOLA NEURTZEN DUGU?

• Erabiltzaileen asebetetze maila balioztatuz kirol zerbitzuko langileen aldetik jasotako tratu atseginari eta zalantzak eta arazoak konpontzeko azaldutako jarrerari dagokienez.

• Ikasturte hasieran webgunearen bidez jakinarazitako informazioa.

• Webguneari dagokionez erabiltzaileek lortutako asebetetzea balioztatuz.

ZERBITZU KARTAREN UNITATE ARDURADUNA:

**Eskola Kirolaren Atala/
Eskola Kirolaren Buruzagitza**

—
Rekalde Zumarkalea 30 1.solairua.
48009-BILBO

Tel.: 94 406 87 77 / 94 406 87 82

eskola.kirola@bizkaia.eus

www.bizkaia.eus/eskolakirola

